

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko

5 € · 2024ko martxoa
286 znb

12-21

Hezkuntza
anti-arrazista
helburu

32-37

Eremuen
laborategian

38-45

Haurra ebaluatzetik
testuingurua
ebaluatzera

50-53

Proposamena:
Ijito herriari
baikor
begiratzeko

54

Atzeko atetik


Coral Elizondo

“ IDU begirada etiko bat da



Hotsen liburua

Hona hemen hotsen liburua, ia hots guztiena



hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA
Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua.
20018 DONOSTIA GIPUZKOA.
Tel: 943 37 14 08 · www.hikhasi.eus
Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus
Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea eta Arantxa Urbe.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Nere Amenabar, Esti Amenabarro, Amaia Antero, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Elena Herran, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Olaia Jimenez, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Gofii, Nerea Mendizabal, Maialen Oiartzun, Naiara Ozamiz, Karmele Perez Lizarralde, Karmele Perez Urraza, Iratxe Redondo, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Komunikazioa: Paula Estevez.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Hik Hasi.

Diseinua: Sorland.

Maketazioa: Hik Hasi.

Inprimategia: ANtzA S.A.L.

Hezkuntza Sailak onetsia (2024-2-9).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plaza-ratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

Aurkibidea

“

Bost bereizgarri dituzten pertsonak hezi nahi ditugu:
euskaldunak, barne sendotasuna dutenak, kooperatiboak,
erabakitzaile-ekintzaileak eta eraldatzaileak

Zigor Ibarzabal

6 EDITORIALA
Zain egon gabe

8 IRITZIA

10 HILEKO IRUDIA
Ikastetxeen hobekuntza
pedagogikoa xede

12 GAI NAGUSIA
Hezkuntza anti-arrazista helburu



22 ELKARRIZKETA
Coral Elizondo



32 ESPERIENTZIA
Eremuen laborategian

38 EKARPENA
Haurra ebaluatetik
testuingurua ebaluatzera




46 AHALDUNTZE ESKOLA
Mendian segurtasunez ibiltzeko

50 PROPOSAMENA
Ijito herriari baikor begiratzeko



54 ATZEKO ATETIK
Lüxi Agergarai





Kulturartekotasunak guztion ardura eskatzen du, hezkuntza eragileena eta ikastetxeena, irakasleena eta familia; herritar guztiona, finean. Ezin dugu egon *goitik* eta *besteek* egingo dutenaren zain: begirada, hizkuntza, jarrera eta harrera guztion esku daude.

Tokian toki, Bergaran, Errenterian... udalek gaiari heldu diote. Ez dute berez hezkuntza-konpetentziarik, baina ardura daukate, eta lanean jarri dira, mahaia eratu, zubiak eraiki, hausnartu, formatu... Konpetentziarik ez, baina ardura daukate aniztasunari benetan erantzuteko, inklusioa benetan gauzatzeko eta segregazioa benetan amaitzeko.

Ardura partekatua eskatzen du kulturartekotasunak. Lehenik, konpetentziak dituztenen partetik, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak... ardura politikoa eta erantzukizun soziala dute oroz gain. Baina ardura eskatzen du, baita ere, bestelako erakunde guztien partetik, diputazioena, Eudelena, Udalbiltzarena, tokian tokiko udalena... eta hezkuntza eragileena eta ikastetxeena, sare guztietako ikastetxeena. Irakasleen ardura ere eskatzen du, ardura kolektiboa eta indibiduala. Familien ardura ere bai, herritar guztiona, finean. Ezin dugu egon, *goitik* eta *besteek* egingo dutenaren zain: begirada, hizkuntza, jarrera eta harrera guztion esku daude.

Datuek inplikazio politiko handia eta baliabideak eskatzen dituzte: epe ertainean hirukoiztu egingo da jatorri immigrantea duten biztanleen kopurua Euskal Herrian. Lehenbailehen ezarri behar dira etorkizun hurbil horri erantzuteko zubiaren harriak, Amelia Barquin adituak dioen eran. Eta hezkuntza funtsezkoa izango da zubi-lan horretan. Barquinek "zubi-pertsona" moduan izendatzen ditu hezitzaileak, gure egitekoak heziketaren esparrua gaintzen du gaur egun, "sozioedukatiboa" dela dio. Horrek prestakuntza eta baliabideak eskatzen ditu, zalantzarik gabe, baina baita jarrera eta begirada ere. Gure ikastetxeetan dauden euskaldun anitzei zer eskaintzen diegu? Zer material, erreferentzia, errepresentazio eta egitura eskaintzen dizkiegu? Gure ikastetxeak oraindik ez dira espazio seguruak haur guztientzat, kasu honetan, ez dira espazio seguruak etorkinen seme-alabentzat. Eta hori guztion ardura da.

Gaur-gaurkoz eta, salbuespenak salbuespen, inplizituki onartzen dugu Monayak, Nourrek, Ikramek, Raniak, Zinebek, Anghelinak, Yaimak, Melaniek eta Yasminek Aitorrek, Asierrek eta Maitek baino aukera gutxiago izango dituztela euren ibilbide akademikoan eta ondoren lan-irteera profilean. Zergatik? Has gaitzen gure eremutik egin dezakeguna egiten, bakoitza bere ardurak hartuz.

Zain egon gabe

Editoriala



Alicia Fernandez Huerta

Oiongo Ramiro de Maeztu eskolako irakaslea
eta *hik/hasitarra*

Duela 25 urte

Psikogenesiaren inguruko zeozer duela 25 urte hasi nintzen entzuten, nire lehenengo ikastetxean, konstruktibismoaren formakuntza jasotzen genuenean. **Hik Hasiren** azken monografikoa psikogenesiari buruzkoa izango zela jakin nuenean, asko pozteaz gain, oroitzapen politak etorri zitzaizkidan burura: lehenengoa Maiterena, urte haietan nire lankide izan zena eta umearen idazketa prozesu horretaz hitz egin zidan lehenengo pertsona.

Egia esan, buruak eztanda egin zidan: fitxak alde batera utzita, umeez benetako testuak idazteko esaten zidan. Baina nola sortuko zuten gutun bat hitz bakarra ere ongi idazten ez bazekiten! Umeen idazketetan nik sasi hitzak, hutsuneak eta akatsak ikusten nituen, baina, hark zioenaren arabera, aurrerapausoak eta fase desberdinak gainditzeko saiakerak omen ziren. Horrek suposatzen zuen ume bakoitzak bere fasearen arabera idatziko zuela, baina nola egin aurrera guztiekin batera? Nik bokalak irakatsi nahi nituen, gero kontsonanteak, banan-banan, eta gero lotu. Fitxak eta kaligrafia. M eta A: MA. Ume guztiak batera.

Konfort zonalde horretatik ateratzea ez zen erraza izan: ez nuen ikasia, ez nuen esperientziarik eta oroitzapenei ezin nien heldu. Nuen bakarria nire lankidea zen.

Eta horrela, nik ere nire psikogenesi propioa izan nuen irakaskuntzan. Haren eredu imitatuz, nire hipotesiak egin nituen, hasieran zalantza askorekin, baina poliki-poliki hutsuneak betez, “akatsak” zuzenduz, etapak gainditzeko hasi nintzen, eta, ume bat alfabetikoki idazten hasten den moduan, neuk ere une magiko hori izan nuen hezkuntza beste modu batean ulertuz.

Umeak kontzientzia fonologikoa bereganatzen duen moduan, nik ere modu kontzienteagoz ikusi nuen ikaslea bere prozesuaren jabe, hezitzailea bitartekari gisa, jarduera errealak, erritmo desberdinak... Entzundako edo ikasitako guztia neure buruan zentzua eta forma hartuz zihoan, behingoz. Orain, konstruktibismoaz harago, ez dut ikusten idazketa prozesua garatzeko printzipio horiek hain ongi errespetatzen dituen beste eredurik.

Halere, 25 urte pasa dira eta oraindik psikogenesia ezezaguna da irakasle gehienek artean. Fakultatean ez da aipatzen, Maitek bere eskolan irakasleak formatzen jarraitzen du, nik nirean, eta oraindik beharrezkoa da gai horri buruzko monografikoak egitea. Nork bere hausnarketa egin dezala. Nire lagun Maiteri, Elena Laizi, **Hik Hasi** aldizkariari eta orokorrean bere ezagutza eskuzabaltasunez partekatzen duen irakasle orori eskerrak emateko aprobetxatuko dut.



Xabier Sarasua

Irakleko irakaslea eta *hik/hasitarra*

Kakalitatezko hezkuntza

Leire Vargasen poema batek eman zidan hizpidea: *Jakintzak askatuko ninduela baina / ez jakiteak ere agian / lokabetuko ninduke / hala aske nintzateke / oro galdetzeko / eta itaunduko nizuke zergatik / eta hori litzateke / ezer baino erradikalagoa.*

Lehenegok Jainkoarengan zuten konfiantza berberaz fio gara gaurko herritarrok Zientziaren izenean “espikatzen” digutenaz. Ustezko zigilu zientifikoa ez duen oro *fake* hutsa da, konspiranoikoa, *magufoen* kontua. Eta lexiko berri hori kontzientzian txertatutako “ARN mezulari” bilakatu zaigu.

Hezkuntza ere, zientifikoa behar duenez gero, haren parametroetara ekarri dugu: denak behar du izan programatua, erregistratua, kalifikatua, ikuskatua, fiskalizatua... Kalitate prozesuek eta ebidentzietan oinarritutako “metodologia zientifikoek” ekarriko diote “seriotasuna” gure lanbideari. Izan ere, nola utzi maisu-maistra hutsalen esku hezkuntza jardueren gidaritza, opor luzeengatik eta diru sarrera seguruagatik baldin badoaz gehienak lanera?

Aurrerantzean berehala nabarmenduko da zientziaren arrastotik kanpo ari dena, koadernoan ez baditu errepikatzen *konpetentzia espezifikoak*, *IDUak*, *ikas-egoera interdiziplinarak*, *ataza globalizatuak*, *steamak*, *eremukako UPDak*...

Zertarako filosofia eta etika? Hiritartasunaren eta zibismoaren bidez erakutsiko diegu ikasleei zein den errei zuzena. Gorputz eta Arte Hezkuntza ere... zertarako jarri ote zituzten ordutegietan? Zer daukate ba arteak eta geure burua ezagutzeak zientifikotik? Eta haurraren barnekotasuna eta barne bulkada? Tira! Identitate arazoak sortzeko nahikoa ditugu sexua eta generoa. Oreka bilatu behar dela norberaren berezko garapeneren eta gizarterako prestatzearen artean? Inteligentzia artifizialaren aroan, haurra digitalki inokulatutako konpetentziez ondo programatzea da ezinbestekoa, parametro “argiak” emanez guztia sistema binarioan ongi antola dezan: aurrerapena/atzeraldia, gaixotasuna/botika...

Kritikotasuna bera garatzeko ere ildo “zientifiko” bakarra dago: ezkertiaratasun progrea, feminismo ofiziala, sexu identitate likidua, ar/eme ezberdintasunik eza, publikotasun administrazioak... Ez okurritu ikasle bakoitzak bere kabuz pentsatzen jarterik... Eta kontuz irakasle, ez gero marrik ateratzen! Berehala salatuko zaitu ondoko aztarnariak ikuskaritzan.

A! Baina ez ahaztu gure hezkuntza proiektu boro-bilei haurra erdigunean “marraztea”. Horretan bai artistak!



Hileko irudia

Ikastetxeen hobekuntza pedagogikoa xede

50 hezitzailetik gora bildu ziren otsailean Andoainen **Hik Hasik** antolatutako “Ikastetxeen hobekuntza pedagogikorako prestakuntza integrala” izeneko formazioan. Jordi Mateu aholkularia, formatzailea, CAIEV formazio elkartearen eta Ca L'Aulet eskolaren sortzailearen eskutik jaso zuten prestakuntza. Eskolako sistemen konplexutasunez jabetzearen garrantzia azpimarratu zuen Mateuk eta euren jardunerako baliagarri diren tresnak eta estrategiak eskaini zizkien bertaratuakoei. Era berean, aldaketa prozesu orotan, aldaketarako dauden baldintzak eta profesionalen rolak kontuan hartu beharraz aritu zen. BeAtarrak, zuzendaritza taldeetako kideak eta irakasleak bildu ziren Andoaingo Bastero Kulturgunean otsailaren 22an, 23an eta 24an.



Gai nagusia

Hezkuntza anti-arrazista helburu

‘Kulturartekotasuna hezkuntzan’ izeneko jardunaldiak egin dituzte otsailean Bergaran. Biltzeneko teknikari Jeanne-Rolande Dacogna, Huheziko Amelia Barquin eta Marta Quintas eta Ndank-ndank elkarteko Eli Dominguez izan dira hizlariak. Gizarte kohesioari eusteko eta ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzeko, hezkuntza anti-arrazistarantz joan behar dela nabarmendu dute.



» Huheziko Marta Quintas, Biltzen zerbitzuko Jeanne-Rolande Dacouagna eta Ndank-ndank elkarteko Eli Dominguez.

Euskaldunak eta senegaldarrak batzen dituen Ndank-ndank elkarteko kide moduan, irakasle moduan eta hiru ume arrazializaturen ama moduan mintzatu zen Eli Dominguez Bergaran *Kulturartekotasuna hezkuntzan* jardunaldietan. Arazoaren muinera jo zuen, gogoetarako bide emanaz: “Gure seme-alabak bizitzan zehar jasango dituzten jarrera arrazistei eta diskriminazioei aurre egiteko hezten ari gara. Gogorra da, baina hori da bizi dugun errealitatea. Gaur gaurkoz, hemen, etorkinen seme-alaba izatea edo arrazializatua izatea, jazarpen eta diskriminazio iturri da, baita eskolan ere”.

Urteak dira hezkuntzan kulturartekotasunaz

Bergara, kohesio bila

Bergaran kulturartekotasuna hezkuntzan landu dute bi egunez bertako hezitzaileekin eta herritarrekin. 2021ean Hezkuntza Mahaia sortu zen Bergaran, herriko hezkuntza formaleko eta ez formaleko ikastetxe eta eragileez osatua. 2022an segregazioaren auziari konponbide bat emateko ibilbidea hasi zuen, lantalde bat sortuz. Herri kohesioa, aniztasuna eta partehartzea sustatzea eta eskola segregazioari aurre egitea dira erronka nagusiak.

eta inklusioaz mintzo garela, baina nahikoa al da? Lortzen al dugu aurreiritziak eta estereotipoak gainditzea? Gure ikastetxeak espazio seguruak al dira etorkinen seme-alabentzat edo autoktonoak ez diren ezaugarriak dituzten ikasleentzat? *Kulturartekotasuna hezkuntzan* jardunaldietan parte hartu zuten lau hizlarien hausnarketak dira horiek. Eusko Jaurlaritzaren Biltzen kulturarteko bizikidetzaren zerbitzuko Jeanne-Rolande Dacouagna, Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateko Amelia Barquin eta Marta Quintas irakasleak eta Dominguez izan ziren hizlariak eta laurak bat etorri ziren, hezkuntzan ikasle guztien aukera eta eskubide berdintasuna bermatzeko, kulturartekotasunetik harago joan behar dela esatean: “Hezkuntzak anti-arrazismorantz egin behar du bidea”.



Jende askok egunero egin behar dio aurre arrazismoari, kalean, legeetan, jarraipen polizialean... Egiturazkoa den neurrian, eskolan ere badago arrazismoa

Jeanne-Rolande Dacouagna, Biltzen

Datuek ez dute beste aukerarik uzten: kulturartekotasuna lehen planora ekarri behar da hezkuntzan, Euskal Herrian bizi dugun eta biziko dugun aniztasunari erantzuteko. Barquinek Ikuspegi Immigraziorako Euskal Behategiaren datuak ekarri zituen: gaur egun, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako biztanleen % 12,4 kanpoan jaioetakoak dira, 270.000 herritar inguru. Xabier Aierdi Ikuspegi-ko zuzendariak egiten duen aurreikuspenaren arabera, hemendik 30 urtera, zaintza arloan ez ezik industrian ere langileak beharko direla kontuan izanda, 400.000 pertsona etorkin beharko dira hutsune hori betetzeko. Beraz, Aierdiren arabera, erkidegoko biztanleriaren herena edo laurdena immigratzailea izango da 2050ean. “Datorkigun errealitateari begira, zubiak eraikitzen hasi beharko genuke, pertsona horien ongizatearen izenean, gure gizartearen ongizatearen izenean eta euskararen ongizatearen izenean”, ohartarazi zuen Barquinek.

Hezkuntza markoa, teorian, aniztasunari begira dago. “Ez da zer nahi dugun ala ez dugun nahi; gaur egun, hemen eta Europan, aitortua daukagun hezkuntza markoa eskola inklusiboarena da. Eskolaren egitekoa kohesio soziala eta gizarte anitz batean elkarbizitza sustatzea da”, argitu zuen Dacougnak. “Ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza izateko eskubidea edukitzea eta ikasle guztien gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko aukerak eskaintzea da gure eskolen egitekoa. Baina hori gertatzen al da gure ikastetxeetan? Kuskusaren eta txalapartaren interkulturalitatea oso ongi

dago, baina harago joan behar dugu, eskubideak bermatzea. Gaur eta hemen, pertsona arrazializatuak diskriminazioa jasaten dute, eta hori argi esan behar da”. Dacougnaren arabera, diskurtso teorikoak gauza bat baldin badio ere, praktika hegemonikoak eredu asimilazionista indartzen du: “Pertsona

migratuei euren praktika

kulturalak ezabatzea eskatzen zaie, nahiz eta markoak elkarriketatik, elkarbizitza eta aukera berdintasunaz hitz egiten digun. Euskal gizarteak akonfesionala da, baina gure jai guztiak katolikoak dira; erlijio askatasuna onartu dago, baina mezkita berri bat irekitzeak beti arazoak sortzen ditu gure gizartean”.

Eskola ere arrazista da, oro har

Sakoneko arazoa arrazismoa da; lau hizlariak bat etorri ziren horretan. “Ez dago arrazarik — argitu zuen Dacougnak —; gizaki guztiok arraza bat osatzen dugu, diferentzia genotipikoak egokitapenezkoak dira, melaninak eraginak.



Curriculumetako eta material didaktikoetako narratiba eurozentrismak baztertzeko beharra zabaldu zuten hizlariak.

Arrazak ez, baina arrazismoa badago, eta jende askok egunero egin behar dio aurre kalean, sare sozialetan, legeetan, jarraipen poliziale-tan... Egiturazkoa da eta, gizartean dagoen neurrian, eskolan ere badago arrazismoa”.

Eskolan dauden arrazakeria zantzuak detektatzea beharrezkoa da, Dacougnaren arabera, hobetzeko. Hausnarketa eta aldaketa behar dituen lehen puntua, hezkuntza antolaketa bera da: “Hezkuntza segregazioa praktika arrazista bat da. Ikasleen gehiengoa jatorri migratukoa eta baliabide ekonomiko mugatuak dituzten familietako haurrak dituzten ikastetxeetan ez dauzkate beste ikastetxe batzuetako umeen

aukera berdinak”. Aukera desberdintasun horrek etorkinen seme-alaben etorkizuna nola baldintzatuko duen ohartarazi zuen: “Gaur egungo munduan zer lan etorkizun edukiko du prestakuntza egokirik jaso ez duen pertsona batek? Haur horiek, etorkizunean, *hiru Pko lanetan* jarraituko dute, haien gurasoek bezala: lan prekarioetan, penagarrietan eta peligrosoetan. Haurrei ez baldin badiugu prestakuntza egokia ematen, pobreziaren transmisio generaziolana gertatuko da”.

Curriculumarekin ere hasieratik behar da: “Kolonizazioak, esklabutza, lurraldeen espoliozioak... nola lantzen dira gai horiek curriculumean

eta material didaktikoetan? Askotan material horiek jatorrizko herri eta kulturei buruzko narratiba gutxiesgarriak eta deshumanizazioak sortzen dituzte eta jatorriaren gutxiespenak arazo larriak sortzen dituzten haurren identitatearen eraikuntzan”. Dacougnak esandakoarekin bat dator Quintas: “Arazo larria daukagu haur askorekin: ez dute beltzak izan nahi, eskolan jasotzen duten mezua beltza izatea txarra dela baita. Haur batek gurasoen jatorria eta kultura gutxiesten eta deshumanizatzen duten mezuak jasotzen baditu etengabe, nola eraikiko ditu bere jatorriarekiko lotura positiboak?”.

Hobetzeko proposamenak

Hezitzaileen praktika eta familien jarrerak ere aztertu egin behar dira, anti-arrazismorantz joateko. Guztiak mintzatu ziren *Pigmalion efektuaz*, jatorri atzerritarreko umeekin bete egiten baita, Dacougnak azaldu zuen moduan: “Aurreiritziak bete egiten direla dio *Pigmalion efektuak*; irakasleak uste badu jatorri etorkineko haurrek porrot indize handiagoak izango dituztela, aurreiritzia bete egingo da, haurren gabeziaren eta zailtasunaren jarriko baitu arreta, gaitasunak eta aukerak sustatu beharrean. Orduan, oinarritzko irteera profesionalak eskaintzen zaizkie aukera bakar gisa, eta porrota iristen da, profezia betez”.

Familiekin ere elkarlanean jardun behar du eskolak, bai atzerritik etorritako familiak eskolan inplikatzeko egiturak sortuz, baina baita aurreiritziak gainditzeko ere. “Familiek etxean esaten dituzten mezu arrazistak ondoren haurrek eskolara eramaten dituzte, eta hortik etortzen dira ume arrazializatuak jasaten dituzten erasoak eta jazarpenak. Bullying arrazistaz hitz giteko ordua da. Ez da gai erraza izaten, baina gai horiei buruz ez badugu argi hitz egiten, ez dugu inoiz arazoa gaindituko. Iritzi arrazistek eragin negatiboa daukate haurtzaro migratu eta arrazializatuaren”.



Betaurreko anti-arrazistak jartzeko ordua. Eskolan dauden jarrera arrazistak detektatzeko eta prebenitzeko, protokolo argiak sortu beharko genituzke

Eli Dominguez, Ndank-ndank elkarte

Dominguezek egoera arrazistak gainditzeko proposamenetan jarri zuen arreta. Lehendabizi, narratiba berriak sortzeko beharra aldarrikatu zuen, “kolonialismoaz, Afrikaz eta beste herrialdeez ditugun narratiba eurozentrismak gainditu behar ditugu, eta ikuspegi paternalistak baztertu”. Ndank-ndank elkartearen kasuan, Afrika lantzen dute hainbat ikastetxetan, lurraldearen aberastasun ugariak eta horien harira sortzen ari diren gatazka sozialak aztertzen dituzte eta migrazioaren gaia kritikotasunez jorratzen dute, besteak beste.

Errepresentazioaren eta erreferentzia positiboaren beharra nabarmendu zuen Domingue-

Hemengo eta hango

Etorkinen seme-alabek identitate indartsua eraikitzeke mesedegarria da eskolan nortasun plurala garatzeko aukerak izatea, Huheziko irakasle Marta Quintasen hitzetan.

Noiz uzten diote etorkinen seme-alabek etorkin izateari? Galdetu zuen Marta Quintas Huheziko irakasle eta ikerlariak. Erantzuna “inoiz ez” da, etorkinen haurrek ez diote inoiz utziko etorkin izateari ez direlako etorkinak. “Haurrak guraso etorkinak baldin baditu eta hemen jaio baldin bada, edo beste leku batean jaio eta gurasoekin etorri baldin bada ere, ez da etorkina; haurrek ez dutelako migratzea erabakitzen”. Are gehiago, eskolak ez lituzke etorkintzat hartu behar: “Hezitzaileok sinetsi eta transmititu behar dugu etorkinen seme-alabak ez direla etorkinak; hemengoak dira, euskaldunak dira”.

Hezitzailearen begiradak eta begirunezko jarrerak lagundu egingo dio ikasleari eta haren nortasunaren eraikuntzari. Izan ere, etorkinen seme-alabek euren garapen prozesuan identitate krisi handi bat bizi ohi dute, hizlariak azaldu zuten: “Nongoa naiz?” galderari erantzun beharrak eragiten diena. Identitate pluralaren ideia ekarri zuen Quintasek, Maloof pentsalariak onduriko ideia da eta Huhezi Fakultatean sakon landu dutena: “Badirudi identitatea bakarra dela, baina Maloofek ekarri zuen identitate bakarretik harago joateko aukera, hau da, identitate pluralak garatzeko aukera. Leku bakar bateko sentitu beharrean, bitako edo ugaritako senti gaitezke”. Hezitzaile moduan esanguratasun handia dugu identitate bakar

horretarik harago joateko eta haurrei hemengo eta hango sentiarazten laguntzeko. “Ez diegu aukeratzeko eskatu behar, euskaldun ala hango? Bata aukeratzean, besteari traizio egiten diotela sentitzen dute. Ez, hemengo eta hango izan daitezke, biak, hala nahi badute”.

Ikasleentzako ez ezik, kohesio sozialerako ere garrantzitsutzat jo zuen identitate pluralak eraikitzeke aukera izatea, eta ez soilik etorkinen seme-alaben kasuan: “Kulturartekotasunaren helburua denok elkarrekin, baina bakoitzaren berezitasunak onartuz jokatzeko den neurrian, garrantzitsua da denok desberdinak garela aitortzea, baina baita alderdi komunak eta batzen gaituzten ezaugarriak ditugula nabarmentzea ere, hau da, euskaldunak eta talde berekoak garela azpimarratzea, adibidez. Aniztasunaz hitz egitean, garrantzitsua da berdintasunak ere nabarmentzea”.

Nortasun plurala eraikitzen laguntzeko estrategia moduan, etorkinen seme-alabei “nongoa zara?” galdeteari uztea proposatu zuen. “Hemengo sentiarazi behar ditugu eta hemengo kultura bizitzeko aukera eman behar diegu; nabarmendu egin behar diegu haiek ere euskaldunak direla, eta euskaldun anitzen erreferentziak eskaini behar dizkiegu eskolan, euskaldun izateko modu ugari daudela ikus dezaten”.



Erreferentzia eta errepresentazio arrazializatuak eskolara ekartzea gomendatu zuen Eli Dominguezek.

zek. “Zuritasuna da nagusi. Gure eskoletan oso zaila da pertsona arrazializatuak protagonista dituzten materialak aurkitzea. Testuliburuetan, ipuinetan, telebistan, administrazioan... presentzia zuria aurkitzen dugu etengabe. Aldiz, pertsona arrazializatuak agertzen direnean, lanbide prekarioetan, laguntza sozialak jasotzen edo pobreziarekin lotuta agertzen zaizkigu. Horrela, nola eraiki dezakete identitate indartsu bat? Oso zaila da erreferentzia gabe haztea; ez daukate beren burua ikusteko ispilurik eta horrek zailtasun, arazo eta gaitz asko ekartzen ditu. Etorkinen seme-alabek ere eskubidea daukate izan nahi duten hori izan daitezkeela sinesteko”. Horregatik, materialako errepresentazioez gain, erreferentziak ekarri behar dira gelara, Dominguezen arabera: “Euskal Herrian ere baditugu erreferentziak, musikan, aktibismoan, kiroletan... eta horiek

eskolara ekartzea inportantea da, eta ez soilik euren jatorriaz eta kulturaz hitz egiteko, baita bestelako ekintzak egiteko ere”.

Arrazakeria eta mikroarrazakeria

Azken urteetan eskolek eta hezitzaileek betaurreko feministak jantzi dituzten moduan, “betaurreko anti-arrazistak jartzeko ordua” dela adierazi zuen Dominguezek: “Guk zuri moduan, inoiz ez dugu arrazakeria jasango, eta, beraz, ihes egiten digute arrazakeria eta mikroarrazakeria jokabide askok. Eskolan dauden jarrera arrazistak detektatzeko eta prebenitzeko, protokolo argiak sortu beharko genituzke, eta erreferentziazko pertsonak egon beharko lirateke gaiak arduratuta eta formatuta, bereziki hemendik urte batzuetara aurreikusten den testuinguruari begira”.

Euskara, eskubide

Hizkuntza aniztasunaz eta euskarari buruz mintzatu zen Amelia Barquin, Huheziko irakaslea: “Etorkinen seme-alabek euskara behar dute eta euskarak etorkinen seme-alabak behar ditu, baina baldintzak jarri behar ditugu”.

I az Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan jaio ziren 13.000 haurretatik herenak jatorri atzeritarreko ama dauka, Maroko, Kolonbia, Nikaragua, Errumania, Pakistan, Bolivia... eta horiek izango dira datozen urteetan eskoletara etorriko diren umeak. Haur horiek ikaragarritzko hizkuntza aniztasuna ekarriko dute eskoletara. Ia haur guztiak D ereduan matrikulatuko dira, duela urte batzuk ez bezala, dagoeneko etorkinen seme-alabak D ereduak matrikulatzen baitira orokorki. “Eta poztzen gara— adierazi zuen Amelia Barquinek—. Lehen A ereduan eskolatzen ziren eta ikusi genuen horrek desabantailan jartzen zituela eta gizarte arrakala eragiten zuela, kohesio terminoetan eta euskarari lotuta, desastre bat zela. Orain 2006az geroztik, A eredutik, D ereduko ikastetxe publikoetara bideratu da etorkinen seme-alaben matrikulazioa. D ereduan daude eta poztzen gara, baina nola daude D ereduan?”.

Etorkinen seme-alabek beste hizkuntza batzuk ekartzeaz gain, askotan errepikatzen diren ezaugarriak ekartzen dituzte eskoletara, eta horiek ikasketarako eta bereziki euskararen ikasketarako zailtasun bihur daitezke, ongi kudeatu ezean. “Etorri berrien seme-alabek euskara ikas dezaten nahi dugu; euskarak im-



Amelia Barquin Huheziko irakaslea, Bergaran.

migranteen seme-alabak behar ditu, eta etorkinen seme-alabek euskara behar dute, baina baldintzak hobetu behar dira horretarako. Ondo ikasteko baldintzak jartzen ez badizkiegu, tranpa egiten diegu”. Euskararen ikasketan eragin dezaketen oztopoak zerrendatu zituen, hausnartzeko, eta hobetzeko. “Irakasleok sekulako lana daukagu egoera horretan dauden ikasleekin. Asko daukagu egiteko, baina bide polita izango da”.

Euskararen ikasketan eragiten duten oztopoak

- » **Segregazioa:** D ereduan daude etorkinen seme-alabak, baina ikastetxe segregatuetan. Erronka edukatiboari, sozialari, linguistikoari, kulturalari egiten diote aurre ikastetxe horiek eta prestigioa aitortu behar zaie, gaur egun ez baitaude.
- » **Baliabide gutxi:** Daukaten dibertsitateari erantzuteko nahikoa errekurtsorik ez daukaten ikastetxeetan daude.
- » **Irakasleen formazioa:** Jatorri atzeritarreko ikasleekin dauden irakasleek prestakuntza eta gogoeta gehiago behar dute.
- » **Eskolako hizkuntza:** Familiakoa ez den hizkuntza batean ari dira ikasten.
- » **Familiako hizkuntza:** Irakasleek ezagutzen ez dituzten hizkuntzak dauzkate umeen erdiek, gizartean hegemonikoak ez direnak eta aitortuak ez daudenak.
- » **Kultura** ezaugarri minorizatuak dituzten familietako umeak dira. Ezaugarri minorizatu horiek desabantaila bihurtzen dira.
- » **Ingurunea:** Sarritan eremu ez oso euskaldunetan bizi eta ikasten dute.
- » **Sistema:** Familiek, sarri, ez dituzte ongi ezagutzen gizartea eta eskola sistema.
- » **Familien parte-hartzea:** Ikastetxeetan modu mugatuan parte hartzen dute familiek, oro har, beste alor batzuetan lan handiak dituztelako familia etorkin askok.
- » **Familien laguntza** jasotzeko aukera mugatuak izan ohi dituzte, adibidez, etxerako lanetan.
- » **Partikularrik ez:** Klase ertaineko familia zuriok, gure seme-alabak partikularrean bidaltzen ditugu, baina familia batzuek ezin dituzte ordaindu. Eskolaz kanpoko errefortzuek arrakala sortzen dute ikasleen artean.
- » **Euskara errefortzua** gutxitan jasotzen dute.
- » **Aisialdi diferentzialak** arrakala eragiten du. Klase sozial desberdinetako umeak leku desberdinetan daude eskola bukatzean. Partikularrez gain, batzuek kirol jardueretan edo ludikoetan daude, dantzan, futbolean... eta jarduera horiek onura handiak egingo lizkiekete etorkinen seme-alabei, ez soilik alor psiko-sozialean, baita hizkuntzari loturikoan ere, baina ezin dituzte ordaindu.
- » **Pantailak:** Non daude desabantailan dauden umeak besteak ingelesean edo pianoan daudenean? Zoritxarrez, pantaila txikien aurrean daude.
- » **Egoera sozial eta ekonomiko zailak** dituzte familia askok. Familia osoa gela batean bizi bada, zer etxeko lan egingo du haur horrek?
- » **Arrazakeriari** eta diskriminazioari aurre egin behar diote, beren gurasoek bezala.
- » **Atzeritar tratua** ematen zaie etorkinen haurrei, eta ez dira hemengotzat hartzen.



Irakaslea eta psikologoa da Coral Elizondo (Zaragoza, 1965), IDUn aditua, aholkularia eta formatzailea. Urtetan orientatzaile moduan lanean aritu ostean, orain hainbat ikastetxeren bidelagun bihurtu da eraldaketa pedagogikoa gauza dezaten. Iruñeko Mendigoiti ikastetxean formazio bat eskaini du eta bertan egin dio elkarrizketa **Hik Hasik**. Apirilean Donostian izango da **Hik Hasiren** jardunaldietan.

Coral Elizondo

IDU-N ADITUA ETA FORMATZAILEA

“ IDU begirada etiko bat da: fokua aldatzen dugunean, irakasteko modua aldatzen da eta ikasteko era ere bai



Nola definituko zenuke IDU Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala?

Metodo bat da, paradigma bat, teoria bat... Zer da?

IDU marko teoriko moduan definituko dugu. Marko kontzeptual bat da eta oztopoak gutxitzeko baliabideak eta iradokizunak eskaintzen ditu. Hori da IDUren helburua: oztopoak minimizatzea. IDUk hiru hitz gako ditu: oztopoak, ikastun adituak eta aldakortasuna. Alde batetik, oztopoak gutxitzen ditu; bestetik, ikaskuntza maximizatzen du, jakina, oztopoak kenduz ikaskuntza aukerak ugaltzen dira. Helburua ikastun adituak sortzea da, euren ikasketa prozesua kudeatzeko gai direnak. Eta, hirugarrenik, *neuro* perspektiba dauka, aldakortasuna aintzat hartu behar da, hau da, une oro oso presente eduki behar da denok desberdinak garela. Horiek lirateke IDU marko kontzeptualaren ezaugarriak, eta gelako ikasle guztientzat proposamen malguagoak eta irekiagoak egiten laguntzen digu. IDU oinarrietan, pautetan eta egiaztapen puntuetan antolatua eta sistematizatua dago, eta hasieratik ikasketa eta irakaskuntza aukera aberats, ugari eta malguak planifikatzen laguntzen die hezitzaileei.

Zein da IDUren jatorria?

IDU abizenik gabe sortu zen. *Diseinu Unibertsala* zen hasieran, eta gero erantsi zioten *Ikasketarako* abizena. Diseinu Unibertsalaren kontzeptua arkitekturaren munduan sortu zen, esparru horretan hasi ziren oztopoei buruz hitz egiten, oztopo fisikoak ikaskuntzako oztopoak ikustea baino askoz errazagoa baita. 80ko hamarkadan, gurpildun aulkian ibiltzen zen arkitekto batek, Ronald Macek, proposatu zuen diseinatzeko momentuan bertan oztoporik gabe diseinatu behar zela, eskailerak dauden lekuan arrapalak edo igogailuak jartzea proposatu zuen. 90etatik aurrera, beraz, etxeak igogailuekin diseinatzeko eta eraikitzen hasi ziren, ordura arte ez bezala. Garai berean neurozientziaren esparruan *boom* bat gertatu zen, eta aurrerapauso handiak egin ziren garunaren ikerketan eta ezagutzen. Diziplina anitzetako ikerlari talde batek, Psikologiatik, Pedagogiatik eta Informatikatik zetozenak, diseinu unibertsalaren kontzeptua hezkuntzara nola ekar zitekeen aztertzen hasi ziren, haur guztiei curriculumak irisgarriago egin nahi baitzieten. Neurozientziaren ekarpenak kontuan izan zituzten eta alderdi afektiboa, kognitiboa eta curriculumak elkarrekin landu behar zituztela ikusi zuten, eta hainbat proposamen egiten hasi ziren, balioztaturiko proposamenak, eta horiek dira IDUk proposatzen dituen egiaztapen puntuak. Tony Booth eta Mel Ainscow izan ziren hezkuntzako oztopoei buruz hitz egiten lehendabizikoak, eta nabarmendu zuten ikasle batzuen desgaitasunak eta ga-beziak euren hezkuntza prozesuko zailtasunen arrazoi nagusi moduan hartzeak arreta desbideratzen zigula testuinguru guztietan dauden oztopoen aurrean.

IDU marko teoriko baten moduan hartu beharko genuke, haur guztientzako inguruak eta proposamen curriculumak diseinatzeko lagunduko diguna. Baita espazioak ere; espazioak aski malguak izan behar dira

gelako haur guztiak ez daitezen aldi berean ariketa bera modu berean egiten aritu derri-gor. IDUk beraz, proposamen curriculumak, ariketak, ekintzak, materialak, espazioak eta abar malgutzen laguntzen digu.

Malgutasuna al da beste hitz gakoetako bat?

Gaur egun, salbuespenak salbuespen, *batezbesteko ikaslea* hartzen da kontuan eta aparteko diferentziak, edo batezbesteko horretatik ateratzen diren ikasleak, *konpondu beharreko arazotzat* hartzen dira, oro har hitz eginda. Ikasle guztiei proposamen berdinak eskaintzen zaizkie, eta gelako haur guztiak aktibitate edo lan berdina egiten aritu behar dira une berean, denbora tarte berean. Instrukzioaren diseinu zurrun horrek ikasle asko bazterrean uzten ditu. Programazio bakar, estatiko eta homogeneo horrek ez du



IDU marko kontzeptual bat da eta oztopoak gutxitzeko baliabideak eta iradokizunak eskaintzen ditu

balio geletan dagoen aniztasunari erantzuteko, beharrezkoa da, beraz, antolakuntza eta praktika didaktikoak eta curriculumak berrikustea. Gaur egungo erronka kalitateko hezkuntza bermatzea da, ikasketarako espazioak eta kalitatezko pedagogiak eskainiko dizkiena ikasle guztiei. Horrek hezkuntzaren eraldaketa eskatzen du, neurohezkuntzaz hitz egingo duena, malgutasunez, maila anitzez, laguntza sareaz, pertsonalizazioa, oztopoak deusezteaz, ebaluazio hezigarri eta hezitzaileaz, ikasketa partehartzaile aktiboaz, pentsamendu kritikoaz... IDUk ikasketa eta irakaskuntza aukera aberatsak hasieratik planifikatzen laguntzen digu.

Oinarriak, pautak eta egiaztapen puntuak aipatu dituzu. Nola osatzen da IDUren mapa?

Ikaskuntzaren teoriak, ikerketa eta praktikak batzen dira IDUren mapan, alde batetik; eta, bestetik, teknologien eta neurozientziaren aurrerapenak. Irakaslearen praktika du jomugan. Diseinu unibertsalaren kontzeptutik abiatuta, hiru oinarri proposatzen ditu, neurozientziarekin loturiko hiru oinarri dira: lehena, alderdi emozionala edo afektiboa kontuan hartzen duena, eta berdez irudikatzen dena; alberjinia kolorez



Aldatzen ari den eta globalizatua den gizarte baten premia da gela bateko ikasle guztiei erantzutea. Kontua ez da hezkuntza inklusiboa posible dela; kontua da beharrezkoa eta urgentea dela

errekonozimendu sarea irudikatzen da, eta hor sartuko litzateke arlo curricularra edo kognitiboa: hizkuntza, matematika, pertzepzio aukerak, ulermena lantzea... Eta, hiru-garrenik, estrategia sareari loturiko oinarria urdinez irudikatzen da, eta bertan funtzio exekutiboak biltzen dira, adierazpena —bere forma ugarietan— landuko litzateke hemen. Hiru oinarriak neurozientziarekin eta sare neuronalen taldeekin lotuak daude.

Eta hiru oinarri edo multzo horien barruan, beste hiruna jarraibide daude, bederatzi pautak.

Bai, IDUren marko teorikoa hiru oinarri eta bederatzi jarraibidetan antolatzen da. Gainera, jarraibide bakoitzak hainbat puntu ditu, egiaztapen puntuak deitzen zaienak, eta praktikarako proposamenak eta iradokizunak dira. Egiaztapen puntu horiek guztiak iker-tuak eta egiaztatuak daude neurozientziaren eta psikologia kognitiboaren ikuspegitik. Baina hiru oinarri horiek, bederatzi jarraibideak eta 31 egiaztapen puntuak ez dira errezeta moduan hartu behar, oztopoak txikitzeko eta ikasle guztien aukerak handitzeko iradokizun moduan baizik. Ikasketa helburu zehatzen arabera, puntu horiek nahastu eta konbinatu egin daitezke, eta testuinguru edo ingurune partikularretan aplikatu daitezke. Proposamen horiek guztiak sekuentzia didaktikoaren diseinuan ikus daitezke: ekintzetan, baliabideetan, ebaluazio inklusiboan eta justuan, metodologia parte-hartzaileetan, hau da, curriculumeko elementu guztietan, ez baitago IDU atal berezi bat.

Marko teoriko horrek, nola hartzen du lur? Nola ezartzen dugu gure gelan edo ikastetxean?

Nik, abiapuntu moduan, egiten duten guztia, egiten dituzten proposamen guztiak, ikasle guztiengan pentsatuta egiteko esango nieke irakasleei. Horregatik, azken liburuari *Diseña hasta los límites* (Mugetara arte diseina eza-

zu) izenburua jarri nion: hartu ezazu laguntza handiena beharko duen ikaslea, zailtasun handienak izango dituenak, eta hasieratik berarentzat ere diseinatu ezazu, ez *a posteriori*. Diseinu unibertsala guztientzako diseinua da. Horrez gain, irisgarria izatea kontuan izan behar dugu, eta *irisgarri* edo *eskuragarri* diogunean, zentzu zabalean ari gara, hasi letra tipotik eta motibaziora arte. Testuliburu bat agian oztopo bat izan daiteke hizkuntza eza-gutzen ez duen pertsona batentzat, eta liburu digital batek edo *Genially* batek laguntza gehiago eskainiko dizkio, irakurtzen ari den hori nola ahoskatzen den entzun baitezake, adibidez. Lehenengo, eskuragarria. Bigarren, aldarmioak. Ikasleek, ezagutza eraiki dezaten, aldarmioak behar dituzte, hau da, laguntza eta euskarriak behar dituzte, batzuek besteek baino gehiago. Proposamen bat diseinatzen dugunean, kontuan izan behar dugu ikasle guztiengana iritsi behar dugula eta manipularria izan behar dela. Eta, azkenik, ez ahaztu metakognizioa; ezagutza barneratzea, nork bere buruarekin gogoeta egitea, edo baita taldean planifikatzea eta antolatzea ere.

IDU erantzun inklusibo baten moduan sortu zen, eta zuk hezkuntza inklusiboaren aktibista moduan definitzen duzu zeure burua.

Hezkuntza inklusiboa behar bat da, gizarte anitz batek daukan premia da, aldatzen ari den eta globalizatua den gizarte baten premia da gela bateko ikasle guztiei erantzutea. Kontua ez da posible dela; kontua da beharrezkoa eta urgentea dela. Gure geletan interes diferenteak dituzten haurrak ditugu, motibazio ezberdinak dituztenak, gaitasun ezberdinak dituztenak, kezka ezberdinak dituztenak, ikasketa eredu ezberdinak dituztenak... Pertsona zoragarriak dauzkagu, ikasteko, elkarrekin bizitzeko, barre egiteko eta kantatzeko gogo ikaragarria dutenak, eta behin eta berriro atsekabetzen ditugu ariketa monotonoekin, aulki deserosoetan orduak



eta orduak pasarazten dizkiegu, mugitzeko aukerarik gabe, paperarekin eta arkatzarekin egin beharreko azterketak jartzen dizkiegu, diskurtso aspergarriak botatzen dizkiegu eduki abstraktuarekin, haiek manipulatzeko aukerarik gabe, eta zentzurik aurkitu gabe... Aldatzeko garaia da, eta posible da.

Heziketa inklusiboaren eredu hau desgaitasunaren eredu sozialetan oinarritzen da. Bereziki 80ko hamarkadan hartu zuen indarra. Ez dio defizitari begiratzen, ezta desgaitasunari ere, testuinguruari baizik; oztopoei, aurreiritziei, jarrera negatiboei eta eskusioari begiratzen die, aldatzeko. Ikuspegi hori hezkuntzara eramaten baldin badugu, arreta testuinguruan jarri behar dugula ikusiko dugu, oztopoak deuseztu behar ditugula, eta ikasle guztiei begirada inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa eskaini behar diegula.

Neurozientziak zer ekarpen egiten dio IDUri?

Oso gauza oinarritzko batekin hasiko naiz hori azaltzen: garun guztiak bakarrak dira. Gaur elkartu garen 50 pertsonak ikasteko modu ezberdina daukagu, garun bakoitzak funtzionamendu ezberdina dauka, eta horrek dibertsitate funtzionalaren eredu sozialera garamatza, ez soilik hezkuntza eredura. Zer esan nahi du horrek? 2006az geroztik gaitasun egon beharko lukeela gaitasun/ezgaitasun dikotomiak, eta onartuta pertsona guztiak desberdinak garela. Abiapuntu horretatik egin behar dugu guztia: aldarmioak jartzea, modelaketa, maila anitzak eskaintzea... Neurodibertsitateaz hitz egin behar dugu, baina kontuan izanda guztiok garela anitzak, ez soilik etiketa bat dutenak.

Hortik aurrera, eta zimendu neurozientifikoe-tan oinarrituta, IDUK hiru sare neuronalak hiru oinarriekin eta horien pautekin eta egiaz-tapen puntuekin lotzen ditu, eta horrek egin ditzakeen egokitzapenak ikusten laguntzen



Neurodibertsitateaz hitz egin behar dugu, baina kontuan izanda guztiok garela anitzak, ez soilik etiketa bat dutenak



dio irakasleari. Hauek dira hiru printzipioak: batetik, motibazioa; irakasleak ikasleei inplikatze modu ugari eskaini behar dizkie bere praktikan. Horrek motibazioari egiten dio erreferentzia, motibazioa elementu nagusia baita ikasketan, ikasketaren zergatian. Horregatik, irakasle moduan, hainbat galdere egin behar dizkiot neure buruari: "Nola motibatuko ditut ikasleak? Eta bereziki, nola eutsiko diot haien arretari?". Alderdi hori oso garrantzitsua da, ez baita soilik kanpoko motibazioa eduki behar kontuan, baita barneko motibazioa ere. Printzipio horrek esaten digu programazioan autoerregulazio estrategiak kontuan eduki behar ditugula, baita ikasketa autonomia eta metakognizioa bultzatzen duten estrategiak ere. Akatsak aitortzeari buruz hitz egiten dugu, eta akatsetatik ikasteari buruz. Ebaluazioa ikasketa prozesuan bertan sartzeaz ari gara, autoebaluaziorako eta koevaluaziorako proposamenak behar ditugu horretarako, egunerokoak idaztea, portfolioekin lan egiteaz ari gara hitz egiten. Printzipio horrek talde lana ere kontuan dauka, eta baita emozioen kudeaketa ere...

Bigarren printzipioak honela dio: irudikatze modu ugari eskaini, pertsona guztiok ez baitugu modu berean hautematen eta ulertzen informazioa. Irakasleak ikasle guztiek ulertzen dutela ziurtatu behar du eta eskainitako informazioa jasotzen dutela. Horretarako, programazioa diseinatzeko ari garen momentuan, informazioaren aurkezpena zaindu behar dugu, datuak zentzumen guztietatik jaso ditzaten; jakintza transferentzia antolatzaile grafiko bidez egin dezakegu, aurretiazko ezagutzak aktibatze edo informazioa multzokatzeko; testu idatziaz gain, informazioa aurkezteko formatu gehiago erabili behar ditugu, irakurketa errazeko baliabideak, audioak, bideoak... Bigarren printzipio horren markoan leudeke, *flipped classroom* eredua, errealitate areagotuko aukerak edo *Visual Thinking*-a, memoria, transferentzia



eta orokortzea indartzeko. Hirugarren printzipioak dio ekintza eta adierazpen forma ugari-tarako aukerak eskaini behar direla, printzipio horrek arreta jartzen baitu *nola?* galderan, *nola* ikasten den. Printzipio horrek ahalbidetzen du ikasle guztiek informazioarekin elkar eragiteko aukera izatea eta ikasitakoa erakusteko norbere gaitasunen arabera estra-tegiak erabiltzeko aukera izatea. Informazioa emateko teknologiak, marrazkiak, gorputza... erabil ditzakete eta ikasle guztien funtzio

exekutiboak lantzeko ahalegina egiten da, eta programazioa diseinatzeko dugunean nabarmentzen da, informazioa aurkezteko komunikazio bide eta baliabide teknologiko ugariak landu behar direla.

IDU marko kontzeptual bat da, gutxi-asko nahiko erraz barnera daitekeena, baina jarraibideak barneratu eta erabiltzeko, formazioa beharrezkoa da, ezta? Irakaskuntzan formazioa funtsezkoa da, beti,



Irakasle guztiei
esango nieke
dagoeneko ari direla
IDU egiten. Dagoeneko
IDU egiten ari gara!
Kontua da batzuetan
ikasle zehatz
batzuentzako egiten
dugula eta ez gara
ohartzen, modu batean
edo bestean, guztiek
behar dutela laguntza
espezifikoren bat

eta baita IDUren kasuan ere. Baina irakasle guztiei esango nieke dagoeneko ari direla IDU egiten. Dagoeneko IDU egiten ari gara! Kontua da batzuetan ikasle zehatz batzuentzako egiten dugula eta ez gara ohartzen, modu batean edo bestean, guztiek behar dutela laguntza espezifikoren bat. Oroz gain, IDU begirada etiko bat da. Orientatzaile lanetan nenbilela, hirugarren mailako neska-to bat oso mugitua omen zen, eta hala esan zidan irakasleak: “Coral, neska hau ez baldin bada geldi egoten, ez du ikasgaia ikasiko”. Irakasle hura non ari zen begirada jartzen? Bere hizkuntzarekin, haurri ekoitzen ari zitzaion ikasketa ez ikastearen ardura. IDUk pentsarazten digu nola egokitu behar dugun testuingurua, nolako ekintzak eskaini behar dizkiogun haur horri berak ikasketa barnera dezan; fokua aldatzen dugunean, irakasteko modua aldatzen da eta ikasteko modua ere bai.

Galdera laburrak

01.

Eskola garaiko oroitzapen on eta txar bana?

Nire oroitzapen guztiak onak dira. Ikastuna nintzen, jakin-min handikoa, ikasteko gogo handia neukan eta daukat oraindik ere.

02.

Nolako eskola amesten duzu?

Nire ametssetako eskolak Mendigoiti eskolaren antza dauka. Errespetuzko eskola bat, irekia, gizatiarra eta oinarri pedagogiko sendokoa. Aniztasuna errespetatzen eta balioesten duen eskola bat, bizitza osoan bidelagun izango duzuna.

03.

Zuretzat garrantzitsua den balore bat?

Eskertza. Jasotzen duzuna, laguntzen dizuna, babesten zaituena...eskertu. Umiltasuna, ardura, maitasuna, askatasuna, justizia... nire bizitzaren erdigunean dauden balioak dira.

04.

Hezkuntzari buruzko film bat edo liburu bat?

Paulo Freireren liburuak ezagutu beharrekoak dira. Philippe Meirieu, Perrenoud edota Freinet ere irakurri beharrekoak dira. Nire liburuen artean, idatzi dudana azkena gomendatuko nuke, *Diseñar hasta los límites*.

Esperientzia

Eremuen laborategian

Hormak higatu, arrakalak loratu. Esaldi hori irakurriko du Gasteizko Koldo Mitxelena institutuko sarrerara iristen denak. Eta, barruan ere, horretan ari dira: metodoak iraultzen eta arrakalak loratzen. Joan den ikasturtean hasi ziren eremuka lan egiten, eta orain artekoaz balorazio ezin hobe egiten dute.



» Koldo Mitxelena institutuan, jakintzagaiak eremuka lantzen dituztenean bi irakasle izaten dira ikasgelan.

Zortzi lerroko ikastetxea da Gasteizko Koldo Mitxelena. Ikasle eta irakasle ugari hartzen ditu egunero, eta, kopuru altu horiek maiz aldaketak egiteko zailtasunak handitzen badituzte ere, erronkari heldu, eta eremuka lan egiten hasi ziren 2022-2023 ikasturtean. DBHko 1. mailan hasi ziren eremuka lanean, eta hala jarraitu dute ikasturte honetan ere. Irailetik aurrera, berriz, DBHko 2. mailara zabalduko dute egitasmoa, ordurako materialak prest izango dituztela aurreikusi baitute.

Epe laburrean, ez dute maila gehiagotara zabaltzeko asmorik, Sergio Tejero Gasteizko

Koldo Mitxelena institutuko BeA (Berrikuntzako Arduradun) eta eremuen koordinatzaileak adierazi duenez: "Sendotu, aztertu eta ebaluatu ondoren erabakiko dugu bigarren ziklora eramango dugun edo ez. Bi irakasle sartzen dira ikasgelan, eta horrek langileen baliabideak bikoiztea eskatzen du. Hori dela eta, gaur-gaurkoz, ezinezkoa zaigu DBH osora zabaltzea".

DBHko 1. mailan, 16 irakasle ari dira eremuka lanean, eta tutoreak dira guztiak. Koordinazio-lanak berebiziko garrantzia hartzen du, eta hiru saio egiten dituzte astero. Horietako bat hautazkoa da, baina irakasle guztiak joaten

dira, Tejeroren esanetan: “Inplikazioa oso handia da. Lan egiteko modu horretan sinesten dugu, eta nabaritu egiten da. Irakasleon arteko koordinazioa benetako iraultza izan da”.

Bi eremu

Ez dituzte ikasgai guztiak modu horretan lantzen, eta bi eremutan egiten dute lan, Tejerok azaldu duenez: “Eremu soziolinguistikoa eta eremu zientifiko-matematikoa ditugu. Eremu zientifiko-matematikoa, Matematika eta Natura Zientziak ikasgaiak sartzen dira, eta eremu soziolinguistikoa, Euskara eta Literatura eta Geografia eta Historia ikasgaiak. Iaz, Gaztelania eta Literatura ere txertatu genuen, baina, aurten, eremu soziolinguistikotik ateratzea erabaki dugu. Dena den, eremu soziolinguistikoko eta Gaztelania eta Literaturako edukiek lotura izaten jarraitzen dute. Edukiak ikas-egoeren bidez lantzen ditugu, eta ikasturte honetan eremu soziolinguistikoa landu dugun lehenengo ikas-egoera *Munduari itzulia* izan da. Kasu horretan, Gaztelania eta Literatura jakintzagaian landu ditugun testuek zerikusia izan dute munduaren itzuliarekin”.

Eremuak eta zeharkako proiektuak bereizten dituzte Koldo Mitxelenan. Urte asko daromatxate zeharkako proiektuak egiten, baina eremuka lan egitea desberdina dela dio Tejerok: “Eremuka aritzean, bi irakaslek ematen dituzten jakintzagaiak jakintzagai bakar bihurtzen dira. Hirugarren ebaluazioan, esaterako, *Baserria* landuko dugu. Planoak egiteko, Matematika erabiliko dute, baina, baserri hori jasagarria izan dadin, Natura Zientziak landuko dituzte. Bakoitzak bere espazioa du, eta, ondoren, espazio komun batean elkartzen dira”.

Koldo Mitxelenan eremuka aritzea zergatik erabaki duten ere azaldu digu Tejerok: “Alde batetik, legeak agintzen duelako. Legeak hala egin behar dugula dio, baina ez du zehazten



» Eremuka lan egiten duten irakasleen bilera.

nola. Eta, zertarako? Bi helburu nagusi lortzeko: lehenik, LHtik DBHrako trantsizioa atsegina izan dadin ikasleentzat eta, bigarrenik, hezkuntza pertsonalizatuagoa izan dadin eta ikasleek tutorearekin denbora gehiago pasatu dezaten. Ikasleen ongizate emozionala bermatzea eta bultzatzea dugu helburu”. Tutorea eta tutorekidea dituzte ikasgela bakoitzean, eta ikasleek egun batzuetan biekin pasatzen dituzte eskola ordu guztiak. Horrela, irakasleek informazio ugari jasotzen dute, eta harremanak sendotu egiten dira.

Aldaketa asko egin behar izan dituzte, lan egiteko modua aldatzearekin batera. Besteak beste, ordutegia aldatzea eskatu die eremuka lan egiteak: blokeak antolatu dituzte, eremu bakoitza lantzeko segidako bi ordu izateko. Eta ebaluazio prozedura ere aldatu egin dute. Jada ez dute zenbakirik erabiltzen, eta konpetentzien araberrako ebaluazioa eta kalifika-

zioa egiten dituzte: hasierakoa, erdiko eta aurreratua. Horiek dira emaitzak. Azterketak egiten dituzte, baina hainbat ebaluazio irizpide erabiltzen dituzte orain.

Kataluniako Montgrós ikastetxea dute erreferentzia nagusi, eta prestakuntza saioak egiten dituzte hiler, Susanna Soler hango irakaslearekin. *Eremuka Lantzen* sarean partekatzen dute egiten dutena, baina sare horretako partaide diren ikastetxeek ez dute gauzak egiteko modu komunik. Pixkanaka ari dira bidea egiten, eta, Koldo Mitxelenan, “etengabe laborategian” daudela diote. “Hezkuntza Sailak ez du batere laguntzen. Eremuka lan egiten hasteko esan digu, baina ez digu esan nola, eta ikastetxe bakoitza geure bidea egiten ari gara. Irakasleei esker ateratzen ari da aurrera hau guztia. Talde lanak funtzionatzen duenean, gozatu egiten du jendeak”, dio Tejerok.



Inplikazioa oso handia da. Lan egiteko modu horretan sinesten dugu, eta nabaritu egiten da. Irakasleon arteko koordinazioa benetako iraultza izan da

Sergio Tejero, Koldo Mitxelenako BeA eta eremuen koordinatzailea

“Ikasle guztiei erraztasunak ematen dizkie”

Eremuka lan egiten duten irakasleek oso balorazio positiboa egiten dute. Beste modu batera lan egiten ohituta zeuden, eta handia izan da aldaketa; baina orain segurtasun handiagoa dutela diote. Talde lana aberatsagoa, politagoa eta eraginkorragoa dela eta motibazio handiagoa dutela diote. Koldo Mitxelenan eremuka lanean ari diren irakasleen taldeak erantzun die **Hik Hasik** egindako galderei.

2022-2023 ikasturtean hasi zineten hainbat jakintzagai eremuka lantzen. Nola aldatu du horrek lan egiteko duzuen era? Irakasleen arteko koordinazioak eskolak emateko askotariko pedagogia eta estrategiak irakatsi dizkigu, gure artean erdibideak topatzea sustatu du eta ikasleen aniztasunari hobeto egokitzen zaizkion erantzunak bultzatu ditu. Horrek guztiak, ordea, lanordu gehiago sartzea eskatu digu.

Izan ere, irakasleen arteko koordinazio lan handia eskatzen du eremuka lan egiteak. Nola egiten duzue koordinazio lan hori? Zenbat denbora eskaintzen diozue?

Astero, hiru ordu ditugu horretarako, eta hiru horietatik bat hautazkoa da; baina irakasle guztiok joaten gara saioetara. Gure ordutegiak bilerak egiteko jasotzen dituen orduetaz gain, ikasmateriala sortzeko eta lan pertsonalerako ditugun orduak ere tutoreen eta irakasle kideen arteko koordinazioa egiteko baliatzen ditugu. Eremuka biltzen gara: eremu soziolinguistikoko irakasleak, alde batetik, eta eremu zientifiko-matematikoko irakasleak, bestetik; baina, guztiok koordinazio saioa une berean dugunez, beharrik izanez gero, elkartu egiten gara.

Hau bigarren ikasturtea da. Zer-nolako balorazioa egiten duzue?

Positiboa. Bidea luzea da, baina emaitza positiboak ematen ari da. Ikasleenganako eta familienganako gertutasun handiagoa lortu dugu. Irakasleen artean, balorazio inkesta egin genuen iaz, eta, Oti 4ra bitarteko eskalan, batez besteko balorazioa 3koa



Irakasleen arteko koordinazioak eskolak emateko askotariko pedagogia eta estrategiak erakutsi dizkigu, gure artean erdibideak topatzea sustatu du eta ikasleen aniztasunari hobeto egokitzen zaizkion erantzunak bultzatu ditu

Koldo Mitxelenan eremuka lan egiten duen irakasle taldea

izan zen. Inkestari erantzun zioten 13 irakasleen artean 9k adierazi zuten eremukako lana errepikatuko zuketela.

Eta ikasleek? Nola hartu dute aldaketa? DBHko 1. mailan aritzen zaretenez, iristen direnek ez dute besterik ezagutu; zuek bai, ordea. Uste duzue lan egiteko modu hau egokiagoa dela ikasleentzat? Alderik ikusi al duzue emaitzetan?

Emaitza akademikoen gaineko balorazioa egiteko, goizegi da oraindik. Orain arte eginda-koarekin, ordea, zera ikusi dugu: lehengo ereduak ikasle gutxiagori egiten ziela mesede eta behar bereziak dituzten ikasleei eragozpenak sortzen zizkiela. Lan egiteko modu berriak, berriz, ikasle guztiei erraztasunak ematen dizkie, DBHrako trantsizioa errazten duelako eta ikasleen eta irakasleen arteko harremanak estutzen dituelako.



Bidea luzea da, baina emaitzak ematen ari da. Ikasleenganako eta familienganako gertutasun handiagoa lortu dugu

Koldo Mitxelenan eremuka lan egiten duen irakasle taldea



Irakasleen arteko koordinazio lan handia eskatzen du eremuka aritzeak.

Haurra ebaluatzetik testuingurua ebalutzera

Ekarpena

Huheziko Hazitegi ikertaldeko Eider Salegi eta Itziar Arregi irakasleek ebaluazioaren paradigma berri bat aurkeztu zuten **Hik Hasiren** Haur Hezkuntzako udazkeneko jardunaldietan, 'Ebaluazioaren ikuspegi aldaketa: haurra ebaluatzetik, testuingurua ebalutzera' izeneko hitzaldian.



**Eider Salegi
eta Itziar Arregi**

Huheziko irakasleak
eta Hazitegi ikertaldeko kideak

Mondragon Unibertsitateko Huhezi Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hazitegi ikertaldeko Eider Salegi eta Itziar Arregi irakasleek haurra ebaluatzetik testuingurua ebalutzera igarotzeko proposamena egiten dute. Beharrezkoa ikusten dute ebaluazioaren paradigma berri bat: "Fokua haurraren jartzeko joera izan da orain arte nagusi, umea ebaluatzea; baina, ebaluatzea garaian, ez da kontuan hartu ume horren testuingurua". Begirada aldatzea proposatzen dute Huhezikoek: "Arreta umearengan soilik jartzetik, fokua testuingurura zabaltzea proposatzen dugu. Azken urteotako ezagutza kontuan izanda, badakigu haurra bere testuinguruaren arabera garatzen dela, testuinguruak zeresan handia daukala haurraren garapenean; horregatik testuingurua ebalutzera jauzi egin behar dugula iruditzen zaigu".

Hazitegi ikertaldearen aburuz, ebaluazio tradizionala atzean utzi behar da, "ebaluazio horren funtzioa ez delako hobekuntzak bilatzea", Arregiren arabera. "Pertsona bat ebaluatzeak esan nahi du beste pertsona bat ebaluatzen dela. Hori etengabe presente eduki behar dugu hezitzaileok". Haur Hezkuntzan zergatik eta zertarako ebaluatu behar den hausnartzeko,

lehendabizi, Haur Hezkuntzako etapak umeari zer eskaini beharko liokeen hausnartu beharko litzateke, Salegiren hitzetan: "Haur Hezkuntzak haurrari eskaini behar diona oso lotuta dago haurtzaroa irudikatzeak dugun moduarekin. Haurraren gaitasunetan oinarritzen diren pedagogietatik begiratuko bagenio umeari, ulertuko genuke haurrak gaitasunak dituela helduarekin lotura esanguratsuak eraikitzeak, bere burua eraikitzeak, esperimendatzeko, lotsatzeko, erakusteko, bere parekideekin harreman positiboak eraikitzeak, lankidetzan aritzeko, hainbat modutan komunikatzeko, mugitzeko, adierazteko, erabakiak hartzeko... Eta hezitzailearen eta eskolaren egitekoa gaitasun horiei bide ematea litzateke". Ikuspegi tradizionalak eta ikuspegi konstruktibistak oso rol desberdina ematen diote hezitzaileari, "eta, ikuspegi baten ala bestearen arabera, hezitzailearen esku-hartzea guztiz desberdina izango da".

Eskolaren eta hezitzailearen helburuak haurraren ongizatea bermatzea izan behar lukeela kontuan izanda, ezinbestekoa izango da haren gaitasunak garatzeko testuinguru egokia eskaintzea, Salegiren aburuz: "Haurraren ongizatea haren gaitasunak garatzeko testuingurua eskaintzen diogunean lortuko da; gustura, seguru eta konfiantzan sentitzen denean.



» Salegi eta Arregi Bilboko jardunaldian, beste hizlariekin batera.

Hezitzaileon esku-hartzeak diseinatzeko garaian, haurrak izan behar du ipar. Horretarako, ezinbestekoa da kalitatezko testuinguru bat eskaintzea, haurren beharrak kontuan hartuko dituen, baina baita irakaslearen beharrak kontuan hartuko dituen ere”.

Zer da testuingurua ebaluatzea?

“Eskolara iristen denean umeak aurkitzen duen guztia testuingurua da, bai materialak eta baita espazioak ere, baina baita testuinguru erlazonala ere: han aurkitzen dituen kideak, lagunak, heldu erreferenteak, beste helduak, familiak... Testuingurua zerbait bizia da, eta egunean zehar aldatzen doa”. Huhezikoen aburuz, haurrari eskaintzen dizkiogun espazioak eta denborak hezitzaileak dira, eta haurraren pentsamenduei forma ematen diete: “Dauzkagun espazioak, denborak eta materialak ez dira kasualitatezkoak, baina denok al dakigu zergatik dauzkagun espazio, denbora eta material zehatz horiek? Eskolan hala egiten delako ala haurraren beharrak asetzeko?”. Hazitegin, hautu garbi bat egin dute: “Espazio fisikoak umearen beharrei erantzun behar die; ez ditugu onartu behar ez oinordetzan jasotakoak ez eta kasualitatearen ondoriozkoak ere. Testuinguru fisikoak haurraren gaitasunak garatzeko aukera handiak ematen ditu, baina, batzuetan, mugatu egiten ditu haurraren beharrak.



Testuinguru fisikoak
haurraren gaitasunak
garatzeko aukera
handiak ematen ditu,
baina, batzuetan,
mugatu egiten ditu
haurraren beharrak

ko testuingurua, halako jarduna. Ikasgelaren erdian mahaiak eta aulkiak jartzen baditugu, ekoizpen indibiduala aterako da hortik segur aski; aldiz, mahaiak kentzen baditugu, segur aski, harremanak eta mugimendua sortuko dira”.

Haurrei eskainiko diegun espazioko materialak aukeratzeko garaian, kontuan edukitzeko hiru irizpide nabarmendu zituzten Huheziko irakasleek: kalitatea, kantitatea eta erabilera.

- **Kalitatea.** Umeei eskainiko dizkiegun materialak “zergatik eta zertarako?” galderen galbahetik pasatu behar ditugu beti: zergatik material bakoitza? Aukeratzaren dugun material bakoitza haurraren beharren arabera edo helduaren edo gizartearen beharren arabera aukeratzaren dugun hausnartu behar dugu.
- **Kantitatea.** “Material gutxi gatazka sortzen du umeen artean; material gehiegi anabasa da; eta, material gehiegi eta nahastuta eskaintzen baldin badiegu, ez da erakargarria umeentzat eta gainkarga bihurtzen da irakasleentzat”.
- **Erabilera.** Ustez, umeen hobe beharrez eta adinari dagozkion ezaugarriak kontuan hartuta ekartzen ditugu materialak ikasgelara, baina, Huhezikoek adierazi zutenez, material horiekin ez da beti gertatzen hezitzaileak espero zuena. “Intresgarria da materialen erabileran arreta jartzea eta umeak non dauden ikustea. Umeak, txikitan, materiala esploratuz hasiko dira, euren buruari ‘zer da hau?’ galdetuz; eta, gero, ‘zertarako erabil dezaket?’ galdetuko diote beren buruari, eta esperientzia horrek mundu sinbolikora eta jolasera eramango ditu”. Beraz, Salegiren eta Arregiren arabera, materialak aukeratzeko garaian, kontuan izan behar da ume talde bakoitzaren beharrak zein diren egu-

nean zehar eta zertarako erabiltzen duten ikasgelan daukaten materiala. “Haurraren ongizatea lortzeko, behatu egin behar da lehenengo, eta, behaketaren ondorioz, behar horiek asetzen joango gara”.

Lehendabizi, hezitzailearen autoebaluazioa

Testuingurua, haatik, ez da soilik fisikoa. Testuinguru erlazonala ere kontuan hartu behar da, helduekin eta beste umeekin osatzen dena. Erreferentziazko helduarengan jartzen dute arreta bereziki ikertzaileek: “Umearen garapenean hain funtsezko izateak ebaluatzaile eta ebaluazio gai bihurtzen gaitu”, adierazi zuen Arregik. Horretarako, eta “umearentzat gu garelako ekarpen nagusi”, garrantzitsutzat jo zuten hezitzailearen autoebaluazioa egitea. “Norberaren burua ezagutzeak eta horren kontzientzia hartzeak norberaren identitatea sendotzen du, eta begirada propioa aberasten du. Irakaslearen ongizatearen abiapuntua norberaren ezagutza eta kontzientziazioa dira. Identitate sendorik gabe, irakasleari ziurgabetasuna sortzen zaio, eta emango ditugun pausoak ez dira seguruak izango”. Bere burua ezagutzeko, irakasleak bere buruaz eta bere esku-hartzeaz hausnartu behar du. “Autoezagutza horrek gure bizitzako beldurrak, frustrazioak, zauriak, konplexuak, gabeziak eta traumak ezagutzera eramaten gaitu. Ikasgela batean gaudenean, horrekin guztiarekin gaude, eta beste lankideekin, familiekin eta, zer esanik ez, haurrekin, horrekin guztiarekin erlazionatzen gara”. Haatik, mugetan ez ezik, arreta gure gaitasunetan eta trebetasunetan ere jartzeko deia egin zuten: “Denok ditugu bertuteak eta berezko ezaugarriak, eta horiek hautematea eta garatzen jakitea oso garrantzitsua da gure autoirudia eta autoestimua garatzeko”.

Hainbat galdera egitea proposatzen dute, hezitzaileak bere burua ebalua dezan:

- Testuinguru fisikoari eta erlazionalari dagokionez, zer eskaintzen diet umeei egunero?
- Zein espaziotan sentitzen naiz erosoan?
- Non pasatzen dut denbora gehien?
- Material guztiak al ditut gustuko?
- Zein da eguneko unerik atsegina niretzat, eta zein desatsegina? Zergatik?

Horiez gain, honako galdera hauek egitea proposatzen dute, hezitzaileak testuinguru erlazionalean (hau da, harremanetan), bere burua ebalua dezan:

- Zein umeri eskaintzen diot denbora gehien? Zergatik? Eta gutxien?
- Nola dago ume taldea ume bati arreta eskaintzen ari naizenean?
- Nola erantzuten du taldeak ni lekuz aldatzen naizenean?
- Zein lankiderekin dut harremanik onena? Zergatik? Zeinek hotzena?
- Zein familiarekin ditut harremanik onenak?

Hausnarketa horiez gain, geure burua testuinguruan eta testuinguruz kanpo nola dagoen behatzea proposatzen dute:

- Nola nago ni?
- Zer eskaintzen dut? Eta zer ez dut eskaintzen beldurragatik?
- Zer-nolako gaitasunak ditut?
- Eta zer-nolako erresistentziak?
- Zer lorpen egin ditugu, eta zer ez dugu lortu?
- Zer ezagutza behar dut lorpen horiek erdiesteko?
- Nola sentitzen naiz ni?
- Zerk eragiten du ni honela sentitzea?
- Aurretik bizitako esperientziak ba al du zerikusirik sentipen horietan?

Haurrari eskaintzen diogun testuinguru erlazionalari behatzeko eta hura ebaluatzeko, autoebaluazioaz gain, ume taldean, irakasle taldean eta familietan jarri behar da arreta. Parekideekin sortzen diren harremanei dagokionez, umeak etortzen direnean ikasgelan sortzen diren dinamikei arreta jarri behar zaie. Horrez gain, irakasle taldea ere zaindu beharreko testuinguru erlazionala da eskolan: “Ume asko ditugu, eta, askotan, zaila da bakarrik iristea guztiengana. Oso garrantzitsua da irakaslearen artean giro ona eta konfiantza sortzea eta hori zaintzen saiatzea. Elkarren osagarri izan gaitezke, eta autoebaluazioa koebaluazio bihurtzeko aukera edukiko genuke. Hori eskolan



Eskola jendartearen testuinguru berrira egokituko baldin badugu, irakasleen eskutik etorriko da aldaketa. Irakasleok jabetu behar dugu hezkuntzaren kalitatearen oinarria irakaslea dela



kultura moduan ikustera iristen baldin bagara, oso aberasgarria izango da”.

Familiak ere funtsezko elementu dira eskolako egunerokoan, eta haurraren ongizatea eta familiaren ongizatea eskutik doaz. Ebaluazioak erakuts diezaguke hezitzaileek nola erlazionatzen garen familiarekin eta familia nola dagoen, “baina, harreman esanguratsuak eraikitzeko, ezinbestekoa da haiekin espazioak eta denborak partekatzea”. Eta ikertzaileek badakite batzuetan harremanak ez direla errazak izaten, bi aldeetatik beldurrak sortzen direlako. Guraso bilerak egituratzeko eskema bat ekarri zuten Huheziko ikertzaileek, proposamen moduan: “Familiarekin egiten dugun bileraren helburua da haurraren garapen pertsonalaren, gaitasunen eta potentzialtasunen berri ematea”. Gurasoei komunikazio ona bermatzeko, positiboak eta zehatzak izatea gomendatu zuen Salegik: “Informazioa objektibotasunez eman. Haur hori nola ikusten dugun objektiboki deskribatu”. Horretarako, bideoak oso lagungarriak direla esan zuen. Haurrari buruz kezkatzen gaituen zerbait baldin badaukagu familiari esateko, zer eta nola esango dugun aurrez prestatzeko gomen-

datu zuen hizlariak: “Ez dadila inprobisazioz egiten dugun zerbait izan, aurrea hartu eta erantzun batzuk prestatu genitzake. Oso argi eduki behar dugu familia horri bere haurraren zer irudi edo harekiko zer begirada eskaini nahi diogun, horrek eragina izango baitu hark bere semearekiko/alabarekiko izango duen begiradan”. Beste bi gako eman zituen bilertarako: gurasoen gaitasunetan sinestea eta hori beraiei helaraztea eta gurasoen emozioei garrantzia ematea, onartzea eta tokia egitea, soilik horrela lortuko baitugu konfiantzazko harreman bat familiarekin”.

Irakasleen ahalduntzea

Irakasleek “harremanen kudeaketan adituak” izan behar dute, etengabe harremanetan baitaude hurrekin, familiekin eta lankideekin. “Horregatik, oso garrantzitsua da irakasleak beren lanbidean ahalduntzea. Gure segurtasun falte aurre egiteko, segurtasuna ematen digu geure burua ezagutzeak, badakigulako non dauden gure mugak eta noraino egin dezakegun”. Jabekuntza horretan, gaitasun sozio-pertsonalak, konfiantza, autokontrola, enpatia edota ezagutza teknikoak garatu



» Hezitzailearen begirada jardunaldiko hizlari guztiak, Donostian.

beharko ditu hezitzaileak.

Noiz eta nola ebaluatu?

Zergatik eta zertarako ebaluatu azaldu ostean, nola ebaluatu behar den azaldu zuten: "Kontuan izan beharreko lehenengo gauza da ebaluazioa kalifikazioa baino gehiago dela. Ebaluazioa elkarren arteko trukea da, eta bi noranzko ditu. Etengabe ari gara elkarri isplua jartzen. Hasteko, ebaluatzeak umeengan duen inpaktuaz konturatu behar dugu". *Noiz ebaluatu?* galderari erantzuteko, Arregik garbi esan zuen planteamendu hori ezin dela bukaera arte utzi: "Umeak etorri baino askoz lehenago jakin behar dugu zer jaso nahi dugun; aurretik diseinu lan bat eskatzen du. Umeak gurekin dauden bitartean, behaketa lana egingo dugu, eta, umeak joandakoan, jasotze, analisi, partekatze, ebaluazio, erabaki-hartze eta aldaketa lana egin beharko dugu. Prozesu moduan irudikatu behar dugu ebaluazioa".

Ebaluatzeko hainbat teknika aipatu zituen Arregik: "Batzuek koaderno edo egunerokoa erabiltzen dute landa-lanari dagozkion oharak

hartzeko, edo behaketa eskalak edo galdetegiak baliatzen dituzte, baina, horrez gain, bideoak eta argazkiak eta gurasoekin izandako elkarrizketak oso baliagarriak izango zaizkigu". Baina gakoa ez da tresna, "baizik eta zer jaso nahi dugun. Prozesuak eta tresnak oso garrantzitsuak dira, baina zergatik eta zertarako erabili nahi ditugun jakin behar dugu. Gakoak irizpideak dira, eta horrek eskatzen du ikastetxeak partekatuak izatea, erabaki adostu batzuk hartu ahal izateko. Bestela, ebaluazioa digeritzeko zaila bihurtzen zaigu".

"Behaketa, dokumentazioa eta interpretazioa eskutik helduta doaz", adierazi zuen Salegik. Ikertzaileek ez zuten teknika magikorik ez errezetarik ekarri, baina adierazi zuten aldaketarako borondatean dagoela gako garrantzitsuetako bat: "Eskola jendartearen testuinguru berrira egokituko baldin badugu, irakasleen eskutik etorriko da aldaketa. Irakasleok jabetu behar dugu hezkuntzaren kalitatearen oinarria irakaslea dela. Ebaluazioak espazioak eta denborak behar ditu, baina baita aldaketarako benetako borondatea eta prestutasuna ere".

Zientzia.eus

Behar dituzun erantzunak

**Zientziari buruzko albisteak,
audioak, bideoak, agenda, argazkiak.**

26.000 edukitik gora.
Entzun, irakurri, ikusi... eta ikasi!

elhuyar
ezagutuz aldatzea

Ahalduntze eskola

Mendian segurtasunez ibiltzeko

Euskal Mendizale Federazioak mendian eta naturaguneetan segurtasunez ibiltzeko gakoak bildu ditu Seiburu egitasmoan. Sei gako dira eta guztiek, segurtasuna eta prebentzioa dituzte oinarri. Arriskurik hartu gabe, naturaz gozatzea da helburua.



Andoni Gutierrez eta Miguel Angel Bernalte, *Pumu* Mendi gidariak eta Euskal Mendizale Federazioko teknikariak



Mendiko segurtasuna bermatzeko gakoak eskaintzen ditu Seiburu egitasmoak eta 2021. urteaz geroztik, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeetan lantzen ari dira. DBH-ko 3. mailako ikasleekin aritzen dira, jarraibide

horiez jabetzeko adin tarte egokia dela uste dutelako. Andoni Gutierrez eta Miguel Angel Bernalte *Pumu* mendi gidariak eta Euskal Mendizale Federazioko teknikariak azaldu dituzte egitasmoaren nondik norakoak.

Seiburu izeneko egitasmoa du martxan Euskal Mendizale Federazioak. Zein da helburua?

Miguel Angel Bernalte *Pumu*: Mendizaleei naturaguneetan eta mendian segurtasunez ibil daitezen jarraibideak eskaintzea. Helburu nagusia hori da, eta ikastetxeetara eramaten dugu gazteek ere mendira nola joan behar duten ikas dezaten: zer izan behar duten kontuan, zer arrisku dauden, zer eraman behar duten, eguraldia nola begiratu behar duten...

Guztiaren oinarria prestakuntza eta prebentzioa dira, beraz.

Andoni Gutierrez: Bai. Seiburu sei gakoren gaineko prestakuntza da eta ikastetxeetan lau orduko formazioa egiten dugu. Naturaguneetara segurtasunez joateko gakoak eskaintzen dizkiegu ikasleei: ibilbidea nola prestatu, eguraldiaren iragarpena nola begiratu behar duten, motxila nola antolatu, indarrak neurtearen garrantzia, nora goazen jakinarazteak duen garrantzia eta arazorik izanez gero, 112 telefono zenbakira deitu behar dutela azpimarratzen dugu.

Motxila nola prestatu eta antolatu behar den azaltzen diezue, besteak beste. Nola prestatu behar da motxila?

A.G.: Motxila bat eramaten dugu, prest, eredu modura. Bolumenari buruz aritzen gara, motxilen tamaina litro kopuruaren arabera bereizten dela eta nola antolatu behar duten azaltzen diegu. Motxilaren goiko poltsikoetan eskura izan behar ditugun gauzak sartuko ditugu: botikina, krema, eskularruak, txanoa, betaurrekoak edota larrialdietarako txilibitua ere. Motxilaren barneko aldeari dagokionez,

kapen gaineko informazioa eskaintzen diegu eta bakoitzak zertarako balio duen azaltzen diegu: lumadun jakak berotasuna emango digu, zirak euriarengandik babestuko gaitu... Mapa bat eramatearen garrantzia ere azpimarratzen dugu. Irteera motaren arabera, material teknikoa beharko bagenu, hori ere motxilaren barneko aldean sartuko genukeela esaten diegu.

Pumu: Guk gutxienekoak markatzen ditugu eta, ondoren, egingo duten kirolaren, irteeraren edo eguraldiaren arabera, gauzak gehitzeko edo kentzeko aukera izango dute.

A.G.: Manta termikoa aldean eramatea garrantzitsua dela eta larrialdirik izanez gero, hipotermiaz babesteko nola jokatu behar dugun azaltzen diegu.

Jarraibide praktikoak eskaintzen dituzue. Ikasleekin egiten dituzuen saioak ere praktikoak al dira?

A.G.: Bai. Saio dinamikoak eta praktikoak egiten saiatzen gara.

Pumu: Ikasleek, taldeka banatuta, ibilbide bat prestatzen dute saioetan. *Wikiloc* aplikazioa erabiltzen dugu ibilbidea lantzeko eta informazioa eskuratzeko: ibilbidearen luzera, zailtasuna, desnibela... Eguraldia begiratzea ere oso garrantzitsua da, eta ez dugu irteera egingo dugun eguneko soilik begiratzen. Aurretik zer-nolako eguraldia egin duen begiratu behar dugu, elurra, izotza... egongo ote den jakiteko, adibidez. Behin ibilbidea prestatuta, aurkezpena egiten dute gelakideen aurrean.

A.G.: Denek parte harteari garrantzi handia ematen diogu eta aholkotasuna ere lantzen dugu gelakideen aurrean egiten duten aurkezpenaren bidez.

Naturaguneetara ateratzen al zarete ikasitakoak praktikan jartzeko?

A.G.: Ez. Lau orduko ikastaroak dira eta ez dugu horretarako denborarik izaten, baina ikastetxeak hala nahi baldin badu, gerora irteeraren bat egiteko aukerarik ere bada.



Mendiko segurtasunerako gakoak

1) Ibilbidea prestatu. Ingurunea aztertu eta baldintzak baloratu.

2) Eguraldiaren iragarpena begiratu. Eguneko eguraldia eta aurreko egunetan egin duena ezagutzea garrantzitsua da.

3) Motxila antolatu. Oinetako eta arropa egokiak janzteaz gain, hidratazioa eta elikadura aintzat hartu.

4) Indarrak neurtu. Ibilbidea egingo duten pertsonen maila fisikoa zein den ezagutzea ezinbestekoa da.

5) Nora zoazen jakinarazi. Gora-beherarik edo istripurik izanez gero, horrek laguntza edo erreskate lanak erraztuko ditu.

6) Arazorik baldin baduzu, deitu 112 zenbakira. Gogoan izan telefonoaren bateria kargatua egoteak berebiziko garrantzia duela.



hik hasi

Hezkuntza
eraldatzeko

Izan zaitez
HikHasitarra!

www.hikhasi.eus



Ijito herriari baikor begiratzeko

50

Proposamena

Apirilaren 8a Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna da. Ijito herriaren harrotasuna sustatzeko eguna da komunitatearentzat, eta baita ijito ez direnei haien kulturaren aberastasuna ezagutaraztekoa ere. Kale Dor Kayiko elkarteak haur eta nerabe ijitoen eskolatzea bultzatzen du Euskal Herrian, 1989tik.



51

Kale Dor Kayiko elkarteak 1989an sortu zen Bilbon, Tio Manuelen ametsa egia bilakatzeko eta haur eta nerabe ijitoen eskolatzea bultzatzeko asmoz. Gerora, urterik urte, zabalduz joan dira elkartearen lan ildoak eta lan esparrua, eta, gaur egun, hezkuntzaz gain, familia, komunitatea, emakumeak, osasuna, komunikazioa eta enplegua lantzen ditu. Baina, oraindik ere, haur eta nerabe ijitoen arrakasta akademikoa eta ikasle ijitoek eskoletan bizi izan dezaketen gizarte bazterketa gainditzea dira Ijito Herriaren Nazioarteko Egunaren aldarrikapen nagusiak.

Ijito Herriaren Nazioarteko Egunak komunitate horri ikusgarritasuna, aitortza eta harrotasuna

emateko balio behar luke: batetik, Kale Dor Kayiko elkarteak salatzen duen moduan, gizarte bazterketa pairatzen dutelako oraindik ere haur eta nerabe ijitoek hala ikastetxeetan nola gizartean “errotuak dauden aurreiritziengatik eta susmoengatik”, Jennifer Perex Etxeberriaren arabera; eta, bestetik, oro har, ijito komunitatearen autoestimu eta autoirudi eskasari buelta emateko: “Ijito hitzak aurreiritzi eta estereotipo asko dauzka oraindik, baita ijitoontzat ere, eta ez dizkiogu geure buruari besteen aukera berberak aitortzen, eta horren adibide da eskola uzteen tasa handia”. Horren aurrean, eskoletan ijitoei buruzko iruditeria zabaltzen saiatzen da Kale Dor Kayiko elkarteak, haur eta nerabe ijitoengan eta ijitoak ez direnengan

eragiteko, hala nola haiek goi mailako ikasketak dituzten ijitoen esperientziara gerturatu, azken hauek "belaunaldi berrien erreferentzia izan daitezen".

Izan ere, gaur-gaurkoz oraindik, datuak esanguratsuak dira: gure ikastetxeetan, ikasle ijitoen % 15 inguru soilik iristen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzera, eta, bereziki neska ijitoen kasuan, handia da eskola uzte goiztiarraren kopurua. Andrea Khalfaoui Larrañaga Deustuko unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak ikasle ijitoen hezkuntza arrakastaren hainbat kasu ezagutzeko egindako doktore tesiaren harira, **Hik Hasi** esan zion "diskriminazio hirukoitza" pairatzen dutela emakume ijitoek:

"Emakume izateagatik, gutxiengo etniko baten parte izateagatik eta ikasketa maila baxua izateagatik. Lehenengo biak ezin direnez aldatu eta, gainera, ez ditugunez aldatu nahi, hirugarren ardatzari heldu behar diogu: neska ijitoen ikasketa maila sustatu eta sendotu behar dugu; horretara bideratu behar ditugu indarrak, eta alde batera utzi behar ditugu energia kontsumitzen duten bestelako debateak". Khalfaoui tesian argitzen duenez, eskola uzte goiztiarra ez dago berez ijito kulturari lotuta, eta diskriminazioari atxikitzen dio erantzukizun hori: "Ijito kulturaren kodean, ez dago ez ikasteari buruzko ezer. Gizarte bazterketa ere ez dago gure kulturaren balioen artean, eta, beraz, oso garrantzitsua da ideia horien arteko bereizketa egitea. Ikasle ijitoak *ghettizatu* egin dira urteetan eta urteetan, aparteko eskoletan pilatu izan dira ikasle ijitoak, eta eskola horiek euren ikasleei maila eta exijentzia akademiko baxuagoak ezartzen dizkieten heinean, normalean da gero emaitza onak ez izatea. Hori historikoki arrazoi garrantzitsu bat izan da ikasle ijitoek ibilbide akademiko eskasa izateko".

Khalfaouiren arabera, "funtzionatzen duen horretan" jarri behar du begirada eskolak. Oso

Ijito herria ezagutarazteko

Apirilaren 8an ospatzen da Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna. Egun horrek lehendabiziko erromani edo ijito kongresua oroitzen du, 1971ko apirilaren 8an egin baitzen Londresen. Kongresu hartan erabaki zituzten ijitoen bandera eta ereserkia. Bandera berdea eta urdina da (belarra eta zerua irudikatzen dute kolore horiek), eta eta gurdi baten gorpila dauka erdian, Indiatik askatasunerantz egindako bidea sinbolizatzen duena. Ereserkia, Gelem gelem (Ibili nintzen, ibili nintzen), Jarko Janovic-ek sortu zuen, eta nazismoaren biktima izan ziren ijitoak oroitzen ditu. Apirilaren 8a, batetik, ijito herriaren harrotasuna sustatzeko baliatzen du komunitateak, eta, bestetik, ijito ez direnei haien kulturaren aberastasuna ezagutarazteko.

garrantzitsua da elkar ezagutzea, eta ijito kulturari ere leku egitea ikastetxean eta erreferentzia positiboak ekartzea eskolara.

Eskolan erabiltzeko baliabideak

Kale Dor Kayiko elkarteak Bizipozako kide da, eta Bizipoza eskolak baliabide ugari eskaintzen ditu ijitoen kultura ezagutarazteko, hala nola Kale Dor Kayiko elkartearen aurkezpen bideoa eta dokuweba, bi ipuin eta ipuin animatu bat, *Maite zaitut* kantaren erromani bertsioa eta Kale Dor Kayiko elkarteak prestatutako hainbat jarduera. Elkarteak, gainera, irakasleak eta komunitatea sentsibilizatzeko ikastaroak ematen ditu.

Jakin-mina zorroztu

*hik hasi*ren produktu berriak webguneko dendan daude eskuragarri. Poltsa, estutxe eta koaderno hauekin urtea ezinhobe hasiko duzue!





Lüxi Agergarai

Xübükota hartzaindegiko zuzendaria

Atzeko atetik

Xübükotatik

Lüxi Agergarai deitzen niz eta Urdinarbe herrian bizi. Bada 15 urte lehen hartzaroan lan egiten dudala. Hasieran, urte batzuez Baxe Nafarroako hartzaintegi batean, ondotik Xiberoan den lehen hartzain etxe euskaldunean. Honek Xübükota hartzain etxea du izena eta 2016ko urtarrilean ateak ideki zituen, garai hartan ez baitzen oraindik euskarazko eskaintzarik lehen hartzaroarentzat Xiberoan. Urrats handia eginik izan zen, eta ber denboran beharrezkoa, gure hizkuntzaren biziarazteko probintzia honetan.

Nire helburua zen Xiberoan lan eta bizitzea, baita ere, euskaraz eta partikulazki xiberotar euskalkian hitz egitea hartzxoeri. Azken urteetan, Xübükotari esker, gurasoek hautu zabala badute, murgiltzean, elebidunean ala frantsesezko toki batean beren haurraren zaintzarazteko.

Egün Xübükotan, 3 hartzain gira eta Maule inguruko herrietako 13 haurrerri harrera egiten diegu.

Uste dut haur hezitzaile girelarik, lanean,

bakoitzak maite dituen aktibitateak egin/ proposatu behar dituela.

Esperientziarekin, ohartzen niz, egun oroztako bizian, zer-nolako garrantzi handia duen kantuak denentzat eta orokorrean. Izan hartzxoentzat diren aspaldiko klasikoetan *Pintto Pintto*, *Urtxintxak oihanean* ala berriagoetan Zetak taldearen *Itzulera* edo Janus Lester taldearen *Erriola* kantuekin, adibidez. Kantatzea aunitz gustatzen zaut, beharrezkoa dut kantatzea; musika entzutea ere. Xübükotan egun guziz egiten ditugun bi gauza dira horiek. Erritual bat bezala. Goiz ala arratsalde batez ahanzten badugu, haurrek azkar galdegiten digute “müsika-müsika!”. Orduan hasten dira eta gira kantuz, dantzan, eskuak algarri emanez edo ez, salto egiten, irria ezpainetan, airos, pozik, parranda polit batean bezala: “Ai zer plazera!”.

Asko gustatzen zaut hori ikustea! Jakin gabe, gure ttipittoek dantzarekin lantzen dute: oreka e ta espazioa, kantuarekin aldiz: hitz berriak ikasten dituzte eta ondorioz hiztegia aberasten sinpleki, jostatuz! Ez ote da bikain?

hik hasi

LEHEN HEZKUNTZAKO JARDUNALDIA

Neurohezkuntza eta Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU)

Ikasle guztien inklusiorako bide

Coral Elizondo
IDUn aditua

“Neurohezkuntza eta Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala: ebidentzietan oinarritutako erantzuna”

Esperientzia

Iruñeko Mendigoiti
eskola publikoa

“Neurohezkuntza aplikatua eskola bizi eta aktiboan: Mendigoitiren begirada”

📅 Apirilaren 20an

📍 Donostian



Izen-ematea zabalik: www.hikhasi.eus



Mondragon
Unibertsitatea

MONDRAGON ZTIM Hub

ZTIM BOKAZIOAK SUSTATUZ

- Tailerrak
- Formazioa
- Hitzaldiak
- Erakusketak
- Bititak
- ...

*GURE EKINTZETAN
PARTE HARTU
NAHI DUZU?
AUKERATU ZUREA!*

ztimhub.mondragon.edu



Babeslea:



Laguntzailea:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Inguruneko Departamentua